



gure mundua *eraldatzeko* 17 HELBURU

LEHEN MAILAKO ERRONKAK
3. zikloa

un
UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



ZER DIRA GHI-AK ETA ZERTARAKO BALIO DUTE?

Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) 17 dira, eta erronka sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak barne hartzen dituzte. 2030. urterako, mundu osoko gobernuek eta pertsonak elkarrekin lortu behar ditugun erronkak dira.

Hurrengoak lortu nahi da:



Mundu osoko pertsonon bizi-baldintzak hobetzea eta bakean bizitzea.



Planeta egoera onean kontserbatzea, espezieen, paisaien eta kulturen aniztasuna galdu gabe.

Horrela, hobeto bizi ahal izango gara orain, baita etorkizuneko belaunaldietakoak ere!

Hau lortzea zure esku ere badago!

Ezagutu GIHak eta probatu zure trebetasunak hurrengo erronkak gainditzeko. Erakusketan artista ezberdinek egindako 17 GIHen ilustrazioak ondo begiratu beharko dituzu horretarako... Ausartzen zara?

2030 Agenda

INOR ATZEAN EZ UZTEKO

2015. urtean, NBEko (Nazio Batuen Erakundea) herrialde guztiek “**Garapen Iraunkorreko 2030 Agenda**” izeneko dokumentuan jasotako 17 helburuak onartu zituzten, eta “INOR ATZEAN EZ UZTEKO” lelopean, helburu horiek lortzeko eta 2030ean jasangarritasuna errealitate bihurtzeko konpromisoa hartu zuten.



GIHei buruz gehiago jakiteko...

...ez utzi bideoak ikusteari!

ZERBAITEN BILA...

Zein helbururen ilustrazioetan agertzen dira objektu hauek?
Batu itzazu.

Zergatik aukeratu ote dituzte irudigileek elementu horiek?

EGIA EDO GEZURRA

Baieztapenak egiazkoak ala gezurrezkoak dira?

EGIA!



GIHak Nazio Batuetako kide batzuek onartu zituzten.

Hauek, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren parte dira.

17 GIH daude guztira.

Hezkuntza jasotzeak ez du pobreziatik ateratzeko balio.

Erakusketako ospitaleak atearak zabalik ditu.

GEZURRA



Eta zer iritzi duzu honako baieztapen hauei buruz? Ados zaude ala ez? Koloreztatu berdez ados bazaude eta gorritz ados ez bazaude.

Haurren lana nahitaezkoa izan beharko litzateke.

Emakumeek etxeko lanak asko gustatzen zaizkielako egiten dituzte.

Etxean jasangarritasuna lortzeko ekintzak bultzatzen dituzten haurrak aldatetaren parte dira.

HITZEKIN KONTATU

Erakusketako marrazkietako bat aukeratu eta hori zergatik aukeratu duzun eta GIHari dagokionez irudikatzen duena kontatu.

Irudiaren izenburua:

Egilea:

GIH:


Zergatik aukeratu duzu?

Zer irudikatzen du zuretzat?

ALDAKETAREN ALDE DANTZAN

Bideo bat biral bihurtu da eskolan. GIHak ezagutarazteko ideia ona, ezta? Gure originaltasuna frogatuko dugu! GIHetako bat edo gehiago aukeratu eta bideo txiki bat egin behar dugu (dantzan, rapeatzen, errezitatzen...). Horretarako, etxeko mugikorra erabil dezakegu.

Ondoren, talde handian bideo onena aukeratu eta sare sozialetan zabalduko dugu.



KONTURATU ZARA?

Garrantzitsua da jendeak GIHei buruz gehiago jakitea, zer egiten duen ondo eta zer gaizki.

Zer iruditzen zaizue talde handian erakusketa bat egitea? Horretarako, gure ingurunearen (eskola, auzoa, familia, lagunak...) marrazki edo argazki bat egingo dugu, GIHak lortzeko mesedegarria edo kontrakoa den ekintza bat erakusteko (janaria zaborrean, norbaiti laguntzea, ura edo argia xahutzea, zaborra bereiztea...). Irudi guztiekin eta bakoitzaren azalpen labur batekin erakusketa ikastetxeko harreran muntatuko dugu.

*Idatzi hemen jasangarriagoak izatea
eta GIHak lortzea irudikatzen duen
esaldi edo testu labur.*



BAT EGITEN DUZU ERRONKAREKIN?

Jasangarriagoak izatea erraza da. Gure eguneroko bizitzan ekintza txikiak oso lagungarriak izan daitezke. Gure egunerokoan betetzeko erronka bat proposatuko diogu geure buruari. Zein da zurea?

